

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Gobernuak eta elkarteek Dekalogo bat aurkeztu dute adineko pertsonenganako tratua sustatzeko

Osasunak eta Eskubide Sozialek bultzatutako lan-taldeak protokolo bat egingo du zahartzaroko tratua txarren egoerak detektatzeko eta horien aurrean jarduteko

Ostirala, 2018.eko ekainak 15

Adineko pertsonenganako diskriminazio eta tratua txarren modu guztiak bazterzea eta eskubideko herritar bezala onartzea dira [zahartzaroko tratua sustatzeko Dekalogo](#) egiterakoan inspirazio gisa erabili diren bi printzipioak. Dekalogo gaur aurkeztu du prentsaurrekoan Fernando Dominguez Osasun kontseilariak, eta harekin batera izan dira Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko (NOPLOI) eta Pertsonen Autonomia eta Garapeneko Nafarroako Agentziako (PAGNA) zuzendari kudeatzaileak, María José Pérez, eta Inés Francés, hurrenez hurren.



Kontseilaria eta zuzendari kudeatzaileak, lau erakundetako ordezkariekin batera.

Gaur, ostirala, Zahartzaroko Abusu eta Tratu Txarren gainean Kontzientzia Hartzeko Munduko Eguna da, eta, horrekin bat eginez, Dekalogoaren aurkezpenen izan dira Osasun eta Eskubide Sozietako departamentuekin batera, agiria egiten parte hartu duten lau erakundetako ordezkariak; zehazki, Camino Oslé eta Juan Francisco Jerez, Nafarroako Geriatriako eta Gerontologiako Elkartearen izenean; José Miguel Pérez, Aitonak-en izenean; Sagrario Lecumberri, Lacarra Adinekoen Elkartearen izenean; eta M^a Ángeles Angulo, Nafarroan Berdintasunaren aldeko Emakumeen eta/edo Feministen Erakundearen Koordinatzailearen izenean (NBEFEK).

[Dekalogo](#) tratua onean inspiratuta dago balio unibertsal bezala hartuta, adina edo norberaren egoera bezalako egoeretatik urrunduta, eta edozein eremutan bizikidetzarako aukera onena bezala izanik, pribatua nahiz publikoa izan. Edukiaren aldetik, bost bloketan egituratuta dago, eta horietan adinekoen iritzia adierazten da: bizitza-proiektuaren jarraitutasuna; identitatea, errespetua, askatasuna eta autonomia pertsonala; harreman positiboak, kalitatezkoak eta konfiantzazkoak; ingurune seguruak eta osasungarriak; eta, bosgarren, bizitzaren amaiera,

María José Pérezek, NOPLOIko zuzendari kudeatzaileak, azaldu duenaren arabera.

Gainera, informazio-kanpaina bat egitea aurreikusi da; horrela, adinekoen tratua ona eskaintzeko Dekalogoaren 50.000 ale argitaratu eta banatuko dira.

Adinekoak positiboan eta zahartze-estrategia

Adinekoentzako irudi sozial eta gizarte positiboarekin loturiko strategiaren haritik, funtsezko hiru ekintza kontuan hartu dira, elkar eratu, osatu eta indartzen direnak: irudi sozial positiboa, adinekoen tratua ona sustatzea eta, hirugarren lekuan, gizon eta emakume adinekoekiko tratua txar egoerak detektatzea eta horien aurrean jardutea.

Modu horretan, diziplina anitzeko lan-taldea sortzea da aurtengorako aurreikusitako oinarrizko ekintza horietako bat, zahartzaroaren gainean iritzi positiboa sortzeko, adinekoen tratua ona sustatzeko Dekalogoaz gain.

Taldea, egun, eratze-fasean aurkitzen da, eta zahartzaroan tratua txarrak detektatzeko eta horien aurrean jokatzeko protokoloa egiten eta eremu ezberdinetako profesionalen artean hedatzeko eta horiek prestatzeko programa diseinatzen ariko da.

Lan-taldea honako hauetako profesionalak osatzen dute: Osasun departamentua (O-NOZ eta NOPLOI), Eskubide Sozialen departamentua (Lehen Arreta eta PAGNA), oinarrizko gizarte-zerbitzuak eta INAI. Horiekin bat egingo dute erakunde sozialek, elkarte profesionalak eta adinekoen tratua onan inplikaturiko bestelako taldeek, Inés Francesek, PAGNAko zuzendari kudeatzaileak, azaldu duenez.

Dekalogoak nahiz lan-taldea duela urtebete abian jarritako "Adinekoak positiboan" kanpaina 2018an indartzeko eta Nafarroako Zahartzaro Aktiboaren eta Osasungarriaren 2017-2022 Estrategia garatzen jarraitzeko diseinaturiko jardueren artean agertzen dira; horien helburua da adinekoek, haien adina dela-eta, jasaten dituzten aurreiritziei, estereotipoen eta diskriminazioen aurre egitea, biztanleriaren zati batean portaera negatiboak sortzen baitituzte.

Fernando Domínguez kontseilariak azaldu du Osasuneko Departamentu arteko Kontseiluak zuzendutako Nafarroako Zahartzaro Aktiboaren eta Osasungarriaren 2017-2022 Estrategiaren helburua dela Nafarroako biztanleriaren zahartzea ahalik eta gaitasun funtzional handienarekin eta bizi-kalitate handienarekin gertatzea sustatzea, "pertsonek aktiboak eta independenteak izan daitezkeen ahalik eta denbora luzeenean eta bizimodu osoa eta gogobetekoa izan dezaten gizarte inklusiboan", adierazi du.

Tratua ona sustatzea eta tratua txarrak prebenitzea

2017an abian jarri zen "Adinekoak positiboan" kanpaina, "Pertsona bakoitzaren atzean historia bat dago; aurrean beste asko egon daitezke" goiburupean, eta horren helburua da Nafarroako gizarteak oro har zahartzaroaren inguruan duen pertzepzioa hobetzea eta zahartzeko modua asko daudela erakusteko ereduak eta jarduerak sustatzea.

Tratua txarren prebentziorako kapituluan honako hauetara bideratutako jardueraren ildo ezberdinak abian jartzen ari dira: kontzientziaketa, sentsibilizaketa eta prebentzioa; profesionalen prestakuntza; detektatzeko protokoloak egitea; detektatutako tratua txarren kasuetan nahiz arrisku-egoeretan esku hartzeko planak diseinatzea; eta ebaluatzeko eta erregistratzeko prozesuak.

65 urtetik gorako 126.000 pertsona

Nafarroan, 65 urtetik gorako 126.423 pertsona zeuden urtarrian; hau da, portzentualki, biztanleria osoaren %19,5a. Horietatik 55.613 gizonetakoak dira eta 70.810 emakumeetakoak.

Era berean, 80 urtetik gorakoei dagokienean, 41.838 pertsona zeuden, Nafarroako biztanleria osoaren %6,5a. Adin-tarte hori osatzen duten pertsonen %63 emakumeak dira.

Zonaka, Lizarraldean eta Pirinioetan dago 65 urtetik gorako pertsona gehien; hots, bietan biztanleria osoaren %24,2.

Nafarroan, 17 udalerritan, biztanleriaren %20a baino gehiago 80 urtekoa edo 80 urtetik gorakoa da.

Dekalogo

Gaur aurkeztutako Dekalogo ondorengo bost eduki-bloketan egituratzen da:

Haien Bizitza-proiektuarekin jarraitzea norberak bizi izandako esperientzietatik eta jasotako jakinduriatik abiatuta

1.- “Bizitzaz gozatzen jarraitu nahi dut, nire esperientzia eta jakinduriatik, betetzeko ditudan proiektuekin eta ametsekin”.

Identitatea, errespetua, askatasuna eta autonomia pertsonala

2.- “Nire identitatea, nire sinesmenak eta balioak, nire duintasuna, nire intimitatea eta nire eskubideak zuk errespetatzea behar dut”.

3.- “Gai naizen artean, gauzak egiten jarraitu nahi dut, nahiz eta gehiago kostatu edo behin edo beste despistatu”.

4.- “Non bizi nahi dudan hautatu nahi dut, zer egin nahi dudan, noiz eta norekin egon nahi dudan eta nire erabakiak errespetatzea nahi dut”.

5.- “Nire ondasunak, dirua, telefonoa kontrolatu nahi ditut, nire arropa hautatzea eta nire burua ahal dudan bitartean zaintzea nahi dut”.

Harreman positiboak, kalitatezkoak eta konfiantzakoak

6.- “Nik zu maitatzea eta zuk ni maitatzea behar dut, edozein urtetan bezala, nik zu onartzea eta zuk ni onartzea, ni entzutea eta niregan konfiantza izatea”

7.- “Nire denbora libre izatea nahi dut. Batzuetan, senideak eta bilobak zaintzearekin gozatzen dut, eta, beste batzuetan, ni besteek zaintzearekin ere bai”.

8.- “Deitzen didazunean edo nirekin zaudenean, tonu onean hitz egitea behar dut, oihurik egin gabe edo umekeriarik gabe”.

Ingurune seguruak eta osasungarriak

9.- “Nire ingurunea errespetuzkoa, abegitsua, segurua eta parte-hartzailea izatea nahi nuke, gustatzen zaizkidan jarduerak egin ahal izateko ingurunea”.

Bizitzaren amaiera

10.- “Amaiera iristen zaidanean, nire ondoan izatea eta niri laguntzea nahi nuke, nire borondatearen eta nahien arabera”.